EUSKERA ABERASTU

Esaldi eta esaera-zaar oneik Axular'en "Gero" liburutik artu, eta bizkaierara apur bat aldatuta emen jarten dodaz. Zenbakiak orrialdeen ezaugarriak dira.

Dabilen arriari ez jako oroldirik lotzen (78).

Ur irikinean ez da eulirik kokatzen (78).

Erabilten dan erropari ez jako sitsik egiten (78).

Zugatz emonkorra ez dau iñok ebagiten (78).

Alperkeria gizonaren obia (Seneka) (83).

Bizi guztien iturburua alperkeria (Krisostomo) (83).

Iturritik ura lez, alperrari gaiztakeria (83).

Nagitasuna pobretasunaren ama (83).

Alperra izlari ederra, barritsu andia (85).

Nagiak beti gero (86).

Alperrentzat egun guztiak jai (91).

Ez eriotza baino jakiñagorik, ezta ordua baino ez jakiñagorik (99).

Amuak arrapatzen ditu arrainak, egaztiak sareak, eriotzak gizonak (104).

Jokoa ez da errenta (115).

Eginak egin (116). A lo hecho, pecho.

Azken gaiztoa egingo dok txoria, gaztetan egiten ez badok abia (248).

Egin daigun ona, begiratu barik nori (303).

Usoak joan eta sareak zabaldu (318).

Irabaziak oiñak arin (318).

Eziñak ez dauka legerik (326).

Otzara bat egin dauenak, egin leikez eun (353).

Ikusten ez dauan begiak, ez dau artzen minik (383).

* * *

Esaldi oneik be Orixe'ren "Quito-n arrebarekin" liburutik artu dodaz, eta aurreko ilebetean legez, apur bat bizkaieraz aldatuta, eskeintzen deutsuedaz. Zenbakiak orrialdeen ezaugarriak dira.

Itza bestera eroan daigun = Cambiemos de tema de conversación (70).

Guzurra zuri da = esaera zaarra.

Esan dozuna guzur baltza da = lo que has visto es una calumnia.

Matasa arildu = Aclarar un asunto enrevesado (Devanar la madeja) (75).

Kuku orreik! = iFuera esos! (76).

Bereak eta bi esan = Cantar las verdades (78).

Muturra biurtu = vencer, someter.

Ez da sortu egi oneri musturra biurtuko deutsanik = No hay quien lo pueda desmentir (80).

Jaungoikoaz onezkoak egin = hacer las paces.

Ez neuke aren narrupean egon nai = No quisiera estar en su pellejo (93).

Begiak zuringotu = Poner los ojos en blanco.

Ez gara zeruan egongo begiak zuringoturik = No estaremos en el cielo como alelados (97).

Au ala bazan sartu bedi kalabazan. Ez bazan loratu bedi baratzan = Ipuinak amaitzeko era bat.

Frantzesa buru jario eta mihin jario da = El francés es casquivano y charlatán (103).

Azala bear da = Hace falta ser caradura (105).

Espirituak ez dau lekurik artzen = El espíritu no ocupa lugar (113).

Jaungoikoaren itza bestera dago = Dios dice otra cosa (130).

Danean dantxoa, neure gizontxoa = esaera zaarra (Hacer lo poco que se pueda).

Aralarko aingeruari agertu bat egitera noa = Voy a hacer una visita (140).

Lo bete-betean gengozala = Estando durmiendo a pierna suelta (175).

GOIKOETXEA IÑAKI